

Mahaian

Aita eta haurrak jarririk daude. Amak eltze bat ekartzen du mahai gainera.

Aita : Maddi, xutik zareno, gatza ekarrazu, plazer baduzu.

(Amak gatza mahai gainean pausatzen du eta jartzekotan delarik)

Haur bat : Ama, jarria ez zareno, ekarradazu beste ganibet bat, hau arrunt kamutsa delako.

2. haurra : Sukaldean zareno, ogi gehiago ekarrazu !

1. haurra : Bai eta hor zareno ere, ura ekarrazu. Ez dakit mahaia nork ezarria duen baina gauzen erdia falta da.

(Ama jartzeko zorian delarik)

Aita : Xutik zareno, eltzea gibelerera eraman ezazu eta gibeleratekoan gasna ekarrazu.

(Azkenean ama jartzen da)

Ama : Orain, afaria bururatua ez dudano ez naiz xutituko eta jarria naizeno, zuk (aita erakutsiz) mahaia bilduko duzu. Zuk (1. haurra erakutsiz) jatsa pasatuko duzu ; zuk (2. haurrari) baxerak garbituko dituzu eta zuek (3ak erakutsiz) baxerak idortuko dituzue. Eta lan horiek denak bururatuak ez direno nehor ez da sukalde honetatik aterako. Artean, telebistaren aitzinean plantatuko naiz eta berriak bururaino entzunak ez ditudano ez zaituztet ene ondoan ikusi nahi !

Aita : Bon, bon, ez du balio samurtzea !
(Ahapetik hurrei) Zer egin dugu ama horrela samur dadin ?

Bi haurrak (sorbaldak
altxatuz eta
harrituak): Pfut !

*Jokalariak : Aita, ama eta bi haur.
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti*